

GIDA: **DESGAITASUNA DUTEN** PERTSONENTZAKO
LAGUNTZAK EMATEA,
GAITASUN JURIDIKOA BALIATZEKO



SUSTATZAILEA: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila.

LANTALDEA: Marije Goikoetxea Iturregui (Bizkaiko Gizartean Esku Hartzeko Bizkaiko Etika Batzordea. Deustuko Unibertsitatea), Rafa Armesto del Campillo (abokatu aditua desgaitasunaren zuzenbidean, Futubide Fundazioa), Patricia Arrizabalaga Iturmendi (Bilboko Auzialdiko 14 zenbakiko Epaitegia), Javier García García (Barakaldoko Auzialdiko 6 zenbakiko Epaitegia), María del Camino Fernández Arias (Bizkaiko Fiskaltza), Elixabet Domínguez Gabas (Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala), Txema Duque Carro (Bilboko Udala), Goizalde Arrieta Echeita (Bilboko Udala), Juan Medrano Albéniz (Osakidetza), M^º Luz Peleteiro Montes (Bizkaiko Tutoretza Erakundea), Arantza Iturriondobeitia González (Bizkaiko Tutoretza Erakundea), Oier Zuberogoitia Atxurra (Bizkaiko Tutoretza Erakundea), Sergio Murillo Corzo (Bizkaiko Foru Aldundia).

ARGITARATZAILEA: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila.

DISEINU GRAFIKOA: Logaritmo.

INPRIMATEGIA: Bizkaiko Foru Aldundia.

ALE KOPURUA: 500.

LEGE-GORDAILUA: BI 421-2022.

AGURRA	5
1. SARRERA	7
2. DESGAITASUNA DUEN ETA GAITASUN JURIDIKOA ERABILTZEKO LAGUNTZA BEHAR DUEN SUBJEKTUA NOR DEN	9
3. ZER DA PERTSONEI BEREN GAITASUN JURIDIKOA ERABILTZEKO LAGUNTZAK EMATEA?	10
4. ZEIN FIGURA EGON DAITEZKE LAGUNTZAK EMATEKO ETA BAKOITZAK ZER EZAUGARRI DITUEN.	11
5. HAINBAT KASUTAN LAGUNTZA EGOKIA PROPOSATZEKO IRIZPIDEAK ETA ORIENTABIDEAK.	13
6. NOLA GAUZATZEN DA EGITEZKO ZAINZA? ZER BALIABIDE IZAN DITZAKE EGITEZKO ZAINZA DUEN PERTSONAK?	14
7. NEURRI JUDIZIALAK BEHAR BADIRA (kuradoretza eta defendatzaile judiziala) NOLA IZAPIDETZEN DA? ZER AGIRI JASO BEHAR DITU ESKABIDEAK?	15
8. NOR IZENDA DAITEKE KURADORE? KONTUAN HARTU BEHAR DIRA PERTSONAREN LEHENTASUNAK? NAHITAEZKOA AL DA KURADORETZA ONARTZEA EDO DESENKUSA DAITEKE?	16
9. LAGUNTZEKO FIGURA JURIDIKOAK DITUEN PERTSONAK GAINERAKO HERRITARREK BAINO BALIABIDE EDO PRESTAZIO SOZIAL ETA SANITARIO GEHIAGO AL DITU?	18
ERAINSKINAK	19

Atsegin handiz eskaintzen dizut Bizkaiko Foru Aldundiak koordinatuta egindako gida hau. Gidak jorratzen du bitzita duina eta osoa bilatzen duen laguntza-paradigma, bizi-proiektua norberaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatuz garatzeko laguntza behar duten pertsonentzat.

Desgaitasunen bat duten Bizkaiko pertsonengandik gertu, hainbat sektoretan, lan egiten dugun profesional batzuen kezkarri erantzuteko sortu da gida hau.

Gure ustez, New Yorkeko Konbentzioan sortu eta gaur egun indarrean dagoen lege-esparruak aukera ezin hobea eskaintzen du desgaitasuna duten pertsonen bitzita autonomoan aurrerapausoak emateko eta haien eskubideak osotasunez baliatzeko. Aukera hori ahalik eta gehien aprobetxatzea da esku artean daukazun lanaren helburua: profesionalak profesionalentzat egindako lana, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak hobeto baliatzea erraztu ahal dugun profesionalak baikara.

Bizkaiko Foru Aldundian jarduketak egiten ditugu desgaitasuna duten eta laguntza behar duten pertsonen eta kuradoreen laguntzeko, 2021eko irailaren 3tik indarrean dauden laguntzako figura eta neurrien arau-esparru berrira igarotzeko. Izan ere, 2021eko irailaren 3an indarrean jarri zen ekainaren 2ko 8/2021 Legea, legeria zibil eta prozesala erreformatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko. Neurri horiek garrantzitsuak diren arren, praktika profesional berriak behar dira testuinguru desberdinetan, esparru berriaren potentzial osoa eraginkorra izan dadin. Gida honek horretan lagunduko duelakoan gaude.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet gida hau egiten lagundu duten erakundeei. Gida hau egiteko prozesua lan koordinatuaren eta lankidetzaren aldeko konpromisoaren emaitza da; izan ere, konpromiso horren helburua gure lurraldean desgaitasuna duten pertsonen eskubideak ahalik eta ondoen baliatzea da. Honako hauei eskerrak eman nahi dizkiet emandako ezinbesteko laguntzagatik: Bizkaiko lehen auzialdiko epaitegi espezializatuak (Bilboko 14 zenbakiko epaitegia eta Barakaldoko 6 zenbakiko epaitegia), Bizkaiko Fiskaltza, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa, Osakidetza (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila) eta Bilboko Udala, udal-administrazio gisa.

Sergio Murillo Corzo

Gizarte Ekintzako foru diputatua

GIDA: **DESGAITASUNA DUTEN** PERTSONENTZAKO **LAGUNTZAK EMATEA,** **GAITASUN JURIDIKOA BALIATZEKO**

1. SARRERA

Gida honen bidez, ekainaren 2ko 8/2021 Legea aztertzen da, **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK BEREN GAITASUN JURIDIKOA BALIATZEN LAGUNTZEKO LEGERIA ZIBILA ETA PROZESALA ALDATU DUENA.**

Legearen funtsezko ekarpena honako hau aintzat hartzea da: desgaitasuna duten pertsona gehienek, behar besteko laguntza badute, eurek har ditzaketela erabakiak, beste pertsona batzuek hartu beharrean.

Arau berria Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan oinarritzen da. Konbentzio hori New Yorken onartu zen 2006ko abenduaren 13an, eta 12. artikuluan ezarri da desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa dutela gainerako pertsonen baldintza beretan bizitzaren alderdi guztietan.

Konbentzioak desgaitasuna duten pertsonen **herritartasuna** aldarrikatzen eta bermatzen du, eta “desgaitasun arrazoiengatik bereizkeria”tzat hartzen du edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, baldin eta horren helburua edo ondorioa giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak baldintza berdinetan aitortzea, erabiltzea eta gauzatzea oztokatzea edo ondorioz gabe uztea bada.

Hala, **pertsonaren duintasuna eta eskubideak errespetatzeak pertsonaren autodeterminazioa errespetatzea barne hartzen du, autodeterminazioak laguntza behar badu ere.** Eskubide hori, beraz, modu pasiboan ulertzen da (pertsonaren borondatea, balioak, sinesmenak eta lehentasunak errespetatzea), baina baita modu aktiboan ere (behar diren laguntzak ematea), norbaitek bere gaitasun juridikoa arduraz eta aldeztu aurretik gauzatu ahal izan dezan, etorkizunean bera nork ordezkatu nahi duen eta zer irizpideren arabera.

Hortaz, gure ordenamendu juridikoan orain arte indarrean egon den sistema aldatu behar da, desgaitasuna duten pertsonen eragiten dieten erabakiak hartzean: horren ordez, pertsonaren borondatearen eta lehentasunen errespetuan oinarritutako beste sistema bat ezarri behar da, eta pertsona arduratuko da, oro har, bere erabakiak hartzeaz. Aldaketa horren ondorioz, ezabatu egin da helduentzako ezgaitasun judiziala aurreko ordenamendu juridikotik, baita gaitasunaren aldaketa judiziala ere.

Izan ere, aldaketa hori ezin da aldatu, gizakiari berari datxekiolarako, eta ezabatu egin dira bere erabakietan pertsona ordeztzen zuten figura juridikoak, hala nola helduen tutoretza, guraso-ahal luzatua eta guraso-ahal birgaitua.

Pertsonak une desberdinetan eta erabaki eta erantzukizun desberdinetarako duten **beharraren** balorazioak zehaztuko du, **proporzionaltasun** printzipioari jarraituta, pertsona horrek bere gaitasun juridikoa gainerako herritarren baldintza berdinetan gauzatzeko behar izan ditzakeen laguntza-neurriak, hala badagokio. Gaitasuna erabiltzeko unean uneko laguntzak edo laguntza iraunkorrak behar direnean, laguntza horiek desgaitasuna duen pertsonaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatu beharko dituzte, proporzioan eta pertsona horren inguruabarrei egokituta.

Pertsona askok behar dituzten laguntzak jasotzen dituzte beren ingurune soziosanitarioan, adiskidetasunezko laguntzaren bidez, profesionalekiko eta hurbilekoekiko konfiantzazko harremanaren bidez, arkitektura-oztopoak kenduta, laguntza kognitiboaren bidez eta antzeko beste batzuen bidez. Askok ingurune segurua dute, beren eskubideak babesten dituen, “egitezko zaintza” gauzatzen duten pertsonen eskuorde-tutako erabakien bidez, hala nola ohiko zaintzaileei, zentro sozio-sanitarioei eta abarri.

Hala ere, arau berriak aurreikusten duenez, kasu batzuetan laguntzen beharra izan daiteke, eta laguntzok borondatez ezar daitezke (hala nola prebentzio-ahalmenak eta autokuradoretza) edo desgaitasuna duen pertsonak berak edo haren zaintzan eta arretan parte hartzen duten beste batzuek arlo judizialean eska ditzakete, babesik ez izateko arrisku larria dagoela iritzi (hala nola “kuradoretza” eta “defendatzaile judiziala”).

Azpimarratu behar da gaitasun juridikoa pertsona batengan hobetu edo okerragotu dezakeen continuum gisa ulertzeak, ezartzen den lege-eredu berrian, arlo judizialean hartutako laguntza-neurriak gutxienez hiru urtean behin (salbuespenez sei urtean behin) berrikusteko beharra dakarrela berekin, betiere aldaketa eskatzen duen egoera aldatzen denean.

Hauxe da gidaren helburua: iritzi publiko orokorrarentzat erraza den moduan erantzutea lege-erreformak ekar ditzakeen galdera ohikoenei, baina ez da zehatza, eta galdera horiek kasu zehatz bakoitzerako orientazio profesionalekin kontrastatzea eragotzi gabe.

2. DESGAITASUNA DUEN ETA GAITASUN JURIDIKOA ERABILTZEKO LAGUNTZA BEHAR DUEN SUBJEKTUA NOR DEN

Gaitasun juridikoa norberaren eta ondarearen gaineko erabakiak hartzeari dagokio.

Konbentzioak honela definitzen ditu desgaitasuna duten pertsonak: "epe luzera, urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorialak dituztenak, eta hainbat oztoporekin elkarreragitean, gizartean bete-betean, eraginkortasunez eta gainerakoen baldintza beretan parte hartzea eragotz dezaketenak. Guztiek ez dute laguntzarik behar beren gaitasun juridikoa erabiltzeko. Desgaitasun fisikoak edo sentsorialak dituzten pertsonak ez dute halakorik behar, bestelako desgaitasun modurik ez badute. Adimen-urritasuna duten pertsonen artean, ostera, laguntza hori beharrezkoa izan daiteke.

Adimen-desgaitasunean (lehen adimen-atzeratasuna esaten zitzaion), pertsona batzuek zailtasunak izan ditzakete ulertzeko edo euren pentsamendua edo jorkabidea antolatzeko. Hala izango balitz, laguntza beharko lukete beren gaitasun juridikoa erabiltzeko. Adimen-urritasuna duten pertsona batzuek ezintasuna izan dezakete egin nahi dutena egiteko, ulertzeko edo erabakiak planifikatzeko, eta, horregatik, laguntza beharko lukete beren gaitasun juridikoa erabiltzeko. Hori gaixotasun mental larriak dituzten pertsona batzuen kasuan eta nahasmendu neurop-sikiatrikoak dituzten beste batzuen kasuan gerta daiteke, hala nola Alzheimer-en gaixotasuna edo antzekoak, non ezintasunak ageri diren memoriaren, ulermenaren edo erabakiak hartzeko beharrezkoa den informazioa baloratzearen aldetik.

Edozelan ere, nabarmendu behar da legeak, oro har, desgaitasuna duten pertsonen buruz hitz egiten badu ere, gutxiengo batek beharko dituela beren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzak. Hortaz, beti pentsatu behar da edozein pertsona dela, printzipioz, autonomoa eta gai, eta balorazio zehatz bat egin ondoren soilik ondoriozta daitekeela laguntza beharko lukeela.

3. ZER DA PERTSONEI BEREN GAITASUN JURIDIKOA ERABILTZEKO LAGUNTZAK EMATEA?

Sistema berriaren ideia nagusia da **LAGUNTZA** ematea horrelakorik behar duen pertsonari (termino zabala da, eta era guztietako jarduerak biltzen ditu): erregulazio berriak ez die ondare-gaiei soilik erreparatu nahi, baita alderdi pertsonalei ere, hala nola bizitza arruntaren gorabeherei buruzko erabakiei (helbidea, osasuna, komunikazioak, etab.).

Hau da, araudi berriaren arabera, desgaitasunen bat duen pertsona batek zailtasunak baditu erabakiak hartzeko, konponbidea ez da ezgaitze-prozedura bat hastea edo tutore edo kuradore bat izendatzeko gaitasuna aldatzea. “Behar diren neurriak” hartu behar dira, bere gaitasun juridikoa gauzatzeko behar duen laguntza eskuratzeko aukera izan dezan. Gaitasun juridikoa berdina da desgaitasuna duten pertsona guztientzat, baina **desgaitasuna duen pertsonaren beharrak kontuan hartuta, behar duen laguntza ezarriko da.**

Hauexek bete beharko dituzte laguntza-neurri horiek:

- a) Pertsonaren duintasunarekiko errespetuan eta oinarritzko eskubideen babesean oinarritzea.
- b) Behar eta proportzionaltasun printzipioetara egokitu beharko dira.

Laguntza ematen duten pertsonak honela jardun beharko dute:

- a) Eskatzen duenaren **gogoia, nahiak eta lehentasunak** kontuan hartuta.
- b) Ahalegina egingo dute desgaitasuna duen pertsonak **bere erabakiak hartzeko prozesua gara dezan**, informazioa emanaz, ulertzen eta arrazoi-tzen lagunduz eta bere lehentasunak adieraz ditzan erraztuz.
- c) Desgaitasuna duen pertsonak **bere gaitasun juridikoa babes gutxiagorekin gauzatu ahal izatea** sustatuko dute.

Salbuespenezko kasuetan, gogoia, nahiak eta lehentasunak zehaztu ezin direnean, **ordezkaritza-funtzioak barne hartu ahal izango dituzte** laguntza-neurriek. Kasu horietan, funtzio horiek betetzeko, kontuan hartu beharko dira desgaitasuna duen pertsonaren bizi-ibilbidea, haren sinesmenak eta balioak, baita hark aintzat hartuko lituzkeen faktoreak ere, hain zuzen ere erabakitzean pertsonak hartuko zituzkeenak ordezkartzarik behar ez balitz.

Hala ere, desgaitasuna duen pertsonaren profilararen arabera (adibidez, desgaitasun intelektual larria duen pertsona jaiotzen denetik), ezin da beti kontuan hartu pertsonaren bizi-ibilbidea. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren 2021eko irailaren 8ko epaiak hau adierazi du: laguntza-neurriak hartzearen aldeko iritzia eman du, pertsonaren gogoaren aurka badoa ere, zeren eta beharrak eragiten duen nahasteak haren egoeraren kontzientzia argia izatea eragozten baitu, eta justifikatu egin du jarduketa horrek bere egungo egoeraren kontzientzia ez izatea eragiten duela.

4. ZEIN FIGURA EGON DAITEZKE LAGUNTZAK EMATEKO ETA BAKOITZAK ZER EZAUGARRI DITUEN.

4.1. BORONDATEZKO NEURRIAK ETA PREBENTZIO-AHALMENAK.

Borondatezko neurriak edozein pertsonak ezartzen dituenak dira, etorkizunean gaitasunik ez izateari aurrea hartu nahian. Notario-eskritura publikoan ezarri behar dira, eta bertan adierazi behar da nork eman behar dituen laguntzak eta zeintzuk izan behar diren. Desgaitasuna izanez gero, laguntzak ematerakoan kontuan hartu beharreko lehenak dira. Neurririk ez badago edo nahikoak ez badira, eta egitezko zaintza nahikorik ez badago, neurri judizialetara jo beharko da.

Ahalordea eman daiteke, halaber, notario-eskritura publikoan, etorkizunean laguntza behar izanez gero, edo laguntza horiek behar izanez gero bakarrik izango da eraginkorra: **horri prebentzio-ahalmena deitzen diogu.**

Bide beretik, laguntza-eremu soziosanitarioan, pertsonak aurretiazko borondateen (edo aurretiazko jarraibideen) dokumentu bat egin dezala sustatzeko ere aprobeitza daiteke aukera hau. Dokumentu horretan jasota geratuko da zelan nahi dituen har daitezkeen etorkizuneko zainketei buruzko erabakiak, eta/edo nork nahi duen bera ordezkatzeko gaitasunik ez duen etorkizunean. Dokumentu hori notarioaren aurrean egin ahal izango da, edo Eusko Jaurlaritzaren aurretiazko borondateen erregistroaren arduradunaren aurrean, edo hiru lekukoren aurrean.

4.2. EGITEZKO ZAINZTA.

Erreformak indartu egiten du egoera hori. Desgaitasuna duen pertsonak gertuko pertsonen laguntza edo babesa badu, normalean senideena, eta borondatezko neurririk ez badago, ez da esku-hartze judizialik behar. Ondorioz, **laguntzeko neurri informala bat da, zaintzaileak eta/edo erreferentziazko ahaideak edo hurbilekoak – zainketa profesionalak dituen ala ez kontuan hartu gabe – modu eraginkorrean aplikatzen ari diren borondatezko neurririk edo neurri judizialik ez dagoenean egongo dena.** Zaintzaileek jarduera garrantzitsuak egin behar dituztenean soil-soilik beharko dituzte baimen eta kontrol judiziala, bai eremu pertsonalean, bai ondarean. Baimen hori ez da beharrezkoa izango prestazio ekonomiko txikia eskatzen denean, garrantzi ekonomiko txikiko jardunak egiten direnean edo esanahi pertsonal edo familiar berezirik ez duten jarduketak egiten direnean.

4.3. BABES-NEURRI JUDIZIALAK: KURADORETZA ETA DEFENDATZAILE JUDIZIALA.

Ebazpen judizial baten bidez eraturako laguntzak dira, eta, horregatik, laguntza neurri formal gisa kalifikatzen dira, **lehentasunekoak izateari uzten diote** eta interesdunak berak aurreikusitako neurririk ez izatearen edo neurri horiek nahikoak ez izatearen edo egitezko zaintza egoki eta nahikorik ez izatearen mende.

Laguntzeko bi neurri judizial mota aurreikusten dira: kuradoretza eta defendatzaile judiziala.

Kuradoretza: desgaitasuna duten pertsonentzako etengabeko laguntza da, hala behar badute, laguntzaren beharra, egoera eta inguruabar zehatzak kontuan hartuta. Haren edukia eta hedadura zehaztu egin behar dira hura eratzten duen ebazpen judizialean, eta, zehazki, kuradorearen esku-hartzea zein egintzatarako behar den zehaztuko da.

Kuradoretza motak:

- a) **Laguntza-kuradoretza**, arau orokorra izan behar dena. Desgaitasuna duen pertsonak **bere gaitasun juridikoari eusten dio**, trafiko juridikoan jarduteko eta esku hartzeko, **kuradorearen laguntzarekin**, halako moldez non pertsona horrek bere erabakiak hartzeko prozesua garatu ahal izango duen, informazioa emanez, ulertzen eta arrazoitzen lagunduz, eta bere lehentasunak adieraz ditzan erraztuz, etorkizunean laguntza gutxiago behar izan dezan.
- b) **Ordezkaritza-kuradoretza**, ebazpen judizialak definitzen dituen egintza zehaztean desgaitasuna duen pertsona ordezteko dakarrena. Laguntza nahikoa ez denean ezartzen da, desgaitasunak zuzenean eragiten diolako erabakiak hartzeko eta autodeterminatzeko gaitasunari, kaltetuak bere eskubideak bere kuradorearen bitartez baliatu ahal izan ditzan. Kasu horietan, kuradoreak kontuan hartu beharko ditu pertsonaren bizi-ibilbidea, sinesmenak, balioak eta **kontuan hartu dituen faktoreak, dagokion erabakia hartzeko. Garrantzi pertsonal edo ekonomiko berezia duten egintza jakin batzuetarako, epailearen baimena beharko da.**
- c) **Kuradoretza mistoa:** bertan, laguntza- eta ordezkari-ahalmenak esleitzen zaizkio kuradoreari.

Defendatzaile judiziala:

Laguntza hori **noizbehinkakoa da, nahiz eta errepikatua izan**, hau da, desgaitasuna duen pertsonak laguntza behar du jarduketa baterako edo batzuetarako, nahiz eta laguntza horren beharra behin baino gehiagotan errepika daitekeen.

Defendatzaile judiziala izendatzeko beste kasu batzuk:

- a) Laguntza-neurriak daudenean (borondatezkoak, egiteko zaintza, judizialak), baina laguntza eman behar duenak ezin duenean edo eman behar ez duenean ezintasunagatik (gaixotasuna, aldi baterako absentsia, heriotza, etab.) edo desgaitasuna duen pertsonaren eta laguntza ematen duen pertsonaren arteko interes-gatazka kontrajarriagatik.
- b) Kuradoreak laguntza emateko egin dezakeen desenkusa ebatzi arte edo desgaitasuna duen pertsonaren ondasunak administratzeko pertsona izendatu arte laguntzeko neurri judizialak izapidetzen zen diren bitartean.

5. HAINBAT KASUTAN LAGUNTZA EGOKIA PROPOSATZEKO IRIZPIDEAK ETA ORIENTABIDEAK.

Laguntza behar duten egoera asko daude, eta laguntza hori handiagoa edo txikiagoa izango da kasu bakoitzaren arabera.

Orain arte azaldu dugunez, egitezko zaintza eraginkorra izan daiteke laguntza emateko, eta, garrantzi berezia duten gaitan soilik, izaera ekonomikoa izan ohi dutentan, baimen judizialarekin osatu beharko da.

Laguntza judizialak proposatu behar direnean, borondatezko laguntza-neurririk edo egitezko zaintza eraginkorrik ez dagoela egiaztatu ondoren, **kasu zehatz bakoitza artatu** beharko da: ez da gauza bera egoitzan bizi eta eraginkortasunez zaindutako adinekoak behar duen laguntza eta pertsonak berak behar duena ingurune zailean, laguntza informalik gabe, edo bere osasun eta/edo ondarrerako arriskua dagoenean. Era berean, desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonak ez dute laguntza bera behar: egoera diagnostikoaren arabera izateaz gain, **inguru-nearen arabera ere izango da.**

Kasu horietan guztietan, **funtsezkoa da eremu soziosanitarioko zein juridikoko profesionalen lana**, arreta jarri behar baitiete sortzen zaizkien egoerei, eta, hala badagokio, proposamenak egin eta laguntza-neurri judizialak ezar daitezten sustatu behar baitute Fiskaltzaren aurrean, bereziki arriskua dagoenean edo babesik ez dutenean. (eranskinetan osasunari eta gizarte-zerbitzuei buruzko txosten horiek egiteko gida batzuk daude).

6. NOLA GAUZATZEN DA EGITEZKO ZAIN-TZA? ZER BALIABIDE IZAN DITZAKE EGITEZKO ZAIN-TZA DUEN PERTSONAK?

Zaintzako edozein neurrik bezala, **kontuan hartu beharko ditu aipatzen ari garen printzipio orokorrak: nortasunaren garapen osoa ahalbidetzea, eta berdintasun-ean moldatzea arlo juridikoan.**

Egitezko zaintza erantzukizun eta konpromiso handia da zaintzaileentzat, eta baliabide hauetakoren bat erabil dezake:

- a) **Epailearen baimena.** Baimen judiziala beharrezkoa izango da zaintzaileak aurrez aipatutako ordezkari-tza-jarduketetatik harago joan behar duenean. Edozelan ere, **baimen hori beharko da garrantzi pertsonal edo ekonomikoko egintzak dakartzaten ordezkari-tza-jardueretarako**, hala nola ondasun higiezinak besterentzeko, ondasunak dohainik erabiltzeko, eskubideei uko egiteko, jaraunspenekin zenbait jarduketa egiteko, maileguak hitzartzeko... eta antzekoetarako. Kasu horietan, desgaitasuna duen pertsonaren bizilekuko epaitegira joko da, eta bertan emango diote egoera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko informazioa (eranskinetan, desgaitasuna duen pertsona baten egoitza-sarrera baimentzeko eskabide-eredu bat dago).
- b) **Beste batzuk.** Legeak ezartzen duen eredu-aldaketa, batez ere izatezko zaintza laguntzak emateko mekanismo naturaltzat hartzerakoan, erronka handia da gizartearentzat, oro har, eta erakunde publikoentzat (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak...) nahiz pribatuentzat (banketxeak...) bereziki. Legeak ez du hori egiaztatzeko prozedurarik ezartzen. Hortaz, kasu zehatz bakoitzari begiratu beharko zaio, profesionalen irizpideen arabera.

7. NEURRI JUDIZIALAK BEHAR BADIRA (kuradoretza eta defendatzaile judiziala). NOLA IZAPIDETZEN DA? ZER AGIRI JASO BEHAR DITU ESKABIDEAK?

7.1. LAGUNTZA-NEURRI JUDIZIALEN ESKAERA IZAPIDETZEA:

Laguntza-neurri judizialak **borondatezko jurisdikzioko espedienteen bidez eskatu behar dira, eta desgaitasuna duen pertsona bizi den tokiko lehen auzialdiko epaitegia da eskuduna.**

Espediente hori sustatu ahal izango dute desgaitasuna duen pertsonak berak, Fiskaltzak eta senide jakin batzuek: ezkontideak, legez edo egitez banandu gabe, edo antzeko egitatezko egoeran dagoenak, aurreko ahaideek, ondorengoek edo anai-arrebek.

Hala ere, edozein pertsonak izango du ahalmena Ministerio Fiskalari jakinarazteko laguntza-neurriak judizialki hartzea eskatzen duen egoera baterako erabakigarriak izan daitezkeen egitateak, eta agintari eta funtzionario publikoek, beren karguengatik edozein pertsonari dagokionez egitate horien berri badute, Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko diote.

7.2. ESKABIDEAN JASO BEHARREKO AGIRIAK:

- a) Laguntza-neurriak hartzeko beharra egiaztatzen duten dokumentuak (txosten medikoak, osasun-historiala, eskola-txostenak edo administrazio-dokumentuak, adibidez, desgaitasuna, mendekotasun-maila eta abar egiaztatzen dutenak).
- b) Gizarte eta osasunaren arloetako profesional espezializatuen peritu-irizpena, kasu bakoitzean laguntza-neurri egokiak aholkatzen dituenak.

8. NOR IZENDA DAITEKE KURADORE? KONTUAN HARTU BEHAR DIRA PERTSONAREN LEHENTASUNAK? NAHITAEZKOA AL DA KURADORETZA ONARTZEA EDO DESENKUSA DAITEKE?

8.1. HONAKO HAUEK IZENDATU AHAL IZANGO DIRA KURADORE:

- Agintaritza judizialaren iritziz beren eginkizuna behar bezala betetzeko gai diren adinez nagusiak.
- Irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta gainerako pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, haien helburuen artean desgaitasuna duten pertsonentzako autonomia eta laguntza sustatzea badago.

8.2. EZIN IZANGO DIRA KURADORE IZAN:

- Laguntza ematen duen pertsonak baztertu dituenak.
- Ebazpen judizialaren bidez guraso-ahala edo, osorik edo zati batean, zaintza eta babes eskubideak kendu edo etenda dutenak.
- Aurreko tutoretza, kuradoretza edo zaintzaile batetik legez kendutakoak.
- Kontratu-harremanak direla bide laguntza behar duen pertsonaren antzeko laguntza-zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak edo izaera duten zerbitzuak ematen ditzutenak.

8.3. JAKINA, KONTUAN HARTU BEHAR DIRA PERTSONAREN LEHENTASUNAK. ARE GEHIAGO, AUTOKURADORETZA BAT AURREIKUSI DELA ERE IKUS DEZAKEGU; AGINTARI JUDIZIALAK (EPAITEGIAK), KURADOREA IZENDATZEKO UNEAN, KONTUAN HARTUKO DU PERTSONAK PERTSONA BAT EDO BATZUK IZENDATU EDO BAZTERTU DITUEN FUNTZIO HORI EGIKARITZEKO, ESKRITURA PUBLIKOAN.

Hala ere, agintaritza judizialak borondatezko xedapenak osorik edo zati batez alde batera utzi ahal izango ditu, betiere arrazoitutako ebazpen bidez, pertsonak ezagutzen ez zituen edo inguruabarrak aldatzen zituen inguruabar larriak badaude.

Autokuradoretza ezartzean kuradorearen ordezkioak izendatzea proposatzen bada, kontuan hartuko dira desgaitasuna duen pertsonak ezarritako ordenan, eta ez badu lehentasunik proposatu, lehenengo proposatutakoa hautatuko da.

8.4. NAHITAEZKOA AL DA KURADORETZA ONARTZEA EDO GORDETZEA, EDO DESENKUSA DAITEKE?

Kode zibilak ezartzen du kuradorea izendatzeko ordena. Kuradore horrek ez badu desgaitasuna duen pertsonaren proposamenik, hau izango da:

- a) Ezkontideari edo antzeko egoeran dagoenari, betiere laguntza behar duen pertsonarekin bizi bada.
- b) Semeari edo alabari edo ondorengoari, eta hainbat badira, laguntza behar duenarekin bizi dena lehenetsiko da.
- c) Gurasoari edo, halakorik ezean, aurrekoari, pertsonarekin bizi dena lehenetsita.
- d) Ezkontideak, bikotekideak edo gurasoek testamentuan edo agiri publikoan xedatu duten pertsonari edo pertsonei.
- e) Izatezko zaintzaile diharduenari.
- f) Kuradoretza behar duen pertsonarekin bizi den anai-arreba, ahaide edo hurbilekoari.
- g) Pertsona juridiko bati: Fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakunde publiko eta pribatuak, xedeen artean desgaitasuna duten pertsonentzako autonomia eta laguntza sustatzea dutenak.

Agintaritza judizialak aurreko zenbakiko ordena aldatu ahal izango du, laguntza behar duen pertsonari entzun ondoren.

Behin entzun eta gero, bere nahia argi geratzen ez bada, agintari judizialak lege-ordena alda dezake, bere gogoak, nahiak eta lehentasunak ulertzeko eta interpretatzeko pertsona egokiena izendatuta.

Kuradore bat baino gehiago izendatzea proposa daiteke, laguntza behar duen pertsonaren nahiek eta beharrek hala justifikatzen badute. Bereziki, **kargu desberdin gisa banandu ahal izango dira pertsonaren kuradorea eta ondasunen kuradorea**. Kuradoretza hainbat pertsonaren esku uzten denean, agintaritza judizialak ezarriko du funtzionatzeko modua, laguntza behar duen pertsonaren borondatea errespetatuta.

Kuradoretzan aritzea desenkusagarria izango da, baldin eta karguan aritzeko izendatutako pertsonarentzat kaltegarriegia bada edo zailtasun larria badakar. Kuradoretza egiten jarraitzetik desenkusatu ahal izango da kuradorea, halaber, jardun bitartean desenkusatzeko arrazoiak sortzen bazaizkio.

Pertsona juridiko pribatuak desenkusa daitezke, baldin eta kuradoretza behar bezala gauzatzeko baliabide nahikorik ez badute edo kuradoretza gauzatzeko baldintzak ez badatoz bat euren estatutu-helburuekin.

Interesdunak desenkusatzeko arrazoa alegatzen badu, izendapenaren berri izan eta hamabost eguneko epean egin beharko du. Auzia geroago agertu bada, noiznahi egin ahal izango du.

Agintaritza judizialak desenkusari buruz ebazten duen bitartean, izendatutakoak bere eginkizuna bete beharko du. Hori egiten ez badu eta laguntzeko jarduera bat beharrezkoa bada, defendatzaile judizial bat izendatuko da kuradorea ordeztuko, eta desenkusa baztertuz gero, desenkusa horrek eragindako gastuen erantzulea ordeztuko da.

Desenkusa onartutakoan, kuradore berria izendatuko da.

9. LAGUNTZEKO FIGURA JURIDIKOAK DITUEN PERTSONAK GAINERAKO HERRITARREK BAINO BALIABIDE EDO PRESTAZIO SOZIAL ETA SANITARIO GEHIAGO AL DITU?

Lehenik eta behin, bereizi egin behar dira, batetik, desgaitasuna duen pertsonaren kontzeptu juridikoa, gida honetan aztertzen ari garen 8/2021 Legeak aipatzen diguna, eta, bestetik, desgaitasunaren balorazioa, www.bizkaia.eus webgunean aurkituko duzuen.

Lehen esan dugun bezala, desgaitasuna kontzeptu juridikotzat hartzen da urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorial iraunkorrek dituen pertsona baten egoera, oztopo desberdinekin elkarreragitean mugatu edo eragotzi dezakeena gizartean bete-betean eta eraginkortasunez parte hartzea, gainerako baldintza berberetan. Era horretan, pertsona da legeria zibilaren eta prozesalaren erreforma honen subjektu nagusia, gainerako gaitasun juridikoak gauzatzeko.

Beste alde batetik, desgaitasunaren balorazioa dago. Administrazio-prozesu horren bidez, desgaitasunaren ehuneko kalifikatzen, aitortzen eta deklaritzen da, eta horren helburua da herritarrek erakunde publikoek desgaitasuna duten pertsonen ematen dizkieten onurak eta baliabideak eskuratu ahal izatea.

Funtsezkoa da bi kontzeptu horiek bereiztea; izan ere, ez da beharrezkoa desgaitasun portzentajea aitortuta edukitzea desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko neurriak gauzatu ahal izateko, ez eta alderantziz ere, eta, beraz, **laguntza judizialeko neurriak dituen pertsonak ez du izango baliabide eta/edo prestazio sozial edo sanitarioetarako lehenetsuneko irispiderik, Gizarte Segurantzaren prestazio batzuk izan ezik.**

Laguntza-neurriak hirugarren bati ematen zaizkio pertsonak pertsona guztientzat berdinak diren oinarriko eskubideak baliatu ahal izatea bermatzeko. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko Konbentzioaren 12. artikulua ondo jasotzen duenez: **“Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa dute, gainerako baldintza beretan, bizitzako alderdi guztietan”.**

ERAINSKINAK



TXOSTEN SOZIALA EGITEKO GOMENDIOAK

Legearen erreformak ezartzen du nahitaezkoa dela peritu-txosten soziala aurkeztea. Txosten sozialak jarraian deskribatutako hainbat alderdi aipatu behar ditu:

1. DATU PERTSONALAK

- Izen-abizenak, jaioteguna eta jaioterria, helbidea, NAN, OIT, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, GS zk.

2. PRESTAKUNTZA-/LAN-EGOERA

- Aktiboa, langabezia, enplegu babestua, okupazio-zentroa,...
- Deskribapena (enpresa, zentroa, langabezian emandako denbora...).

3. EGOERA EKONOMIKOA

- Diru-sarrera motak (pentsioa, enplegu-errenta, etab.), aurrezkiak, ondasun higiezinak/higigarriak.

4. EGUNGO ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN DESKRIBAPENA

- Etxebizitza-mota (egoitza-zentroa, tutoretzapeko etxebizitza, aterpetxea,...), erregimena (jabetza, alokairua, gozamenduna), ingurunearen deskribapena (oztopoak, komunikazioa,...).

5. FAMILIA-/HARREMAN-EGOERA

- Familia-unitatearen deskribapena, bizikidetzeta, familia-harremanak, horien datu-bilketa.
- Erabiltzailearentzako erreferentziazko senidea, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa...
- Harreman-eremua familiaren testuinguruan (harreman mota, harengandik jasozten duen laguntza).

6. TREBETASUN SOZIALAK ETA PARTE-HARTZE SOZIALEKOAK

- Autozainketa: norberaren garbitasuna, janztea, jatea, joan-etorriak, etab.
- Instrumentalak: baliabide komunitarioak erabiltzeko trebetasunak.
- Ekonomikoak: dirua normaltasunez edukitzea edo laguntza behar izatea, kontrolik gabeko gastuak, blokeatutako kontuak, etab.
- Osasuna: medikuaren hitzorduetara joaten da, medikazioa hartzen du, tratamenduekiko oposizioa,...
- Garraioa: gidatzen du, gidatzeko gaitasuna du, garraio publikoak hartzeko gaitasuna du, etab.
- Kontratu-ahalmena: maileguen, dohaintzen eta ondare-xedapeneko egintzen irismena ezagutzen du.
- Komunikazioa eta interakzioa: elkarreraginerako eta komunikaziorako oinarriko trebetasunak, asertibitatea, sentimenduen adierazpena, gatazkak konpontzeko trebetasunak, erasoekiko alternatibak maneiatzea, frustrazioarekiko tolerantzia, erabakiak autonomiaz hartzeko trebetasunak.
- Bizi-dinamismoak: autoestimua, autokonfiantza, aldartea, umorea, aldaketarako motibazioa, erantzukizun-ariketa, erresilientziarekin lotutako jarrerak, harreman-egoeraren pertzepzio subjektiboa, bizi-krisiei aurre egiteko trebetasunak, egoera pertsonalaren kontzientzia.
- Gaitasun kognitiboak: hizkuntzaren ulermena eta adierazpena, epe labur, ertain eta luzerako memoria-gaitasuna, arreta eta kontzentrazioa mantentzeko gaitasuna, nor bere burua behatzeko eta bere beharrak zehazteko trebetasunak, gaitasuna eta bere egoera errealismoz aztertzea, laguntza eskatzeko gaitasuna, hitzorduak eta ekitaldiak antolatzea,...
- Gizarte-harremanak eta gizarte-partaidetza: jolasaren arloko edo aisialdiko jardueretan parte hartzea komunitatearen ingurunean, errotze komunitarioa, gizarte-isolamendua, erostera joatea, ondasunak eta zerbitzuak erostea, lagunekin eta familiakoekin geratzea,...
- Ingurune sozialera eta arauetara egokitzea eta jokabide arriskutsuak: gizarte-egokitzapena, jokabide problematikoak edo desegokituak, delinkuentzia, faltak eta/edo delituak egitea, botoa emateko eskubidea erabiltzea, gizarte-babeseko sistemak erabiltzeko eta eskubideak baliatzeko gaitasuna, arriskuekiko esposizioa, salaketak, larrialdi-zerbitzuen esku-hartzeak, komunitatearentzako arriskuak,...

7. AITORTUTAKO MENDE TASUNA ETA/EDO DESGAITASUNA?

- Ebazpenen kopiak eranstea. Halakorik ez badago, adierazi hori egiaztatzen duen txostenaren data eta iturria.
- Gaur egun ematen diren laguntza- edo laguntza-baliabideak.
- Administrazioak emandakoak, zerbitzu pribatuak... (telelaguntza, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko zentroa, etab.). Laguntza-planaren deskribapena.

9. EGUNGO LAGUNTZA-NEURRIAK ETA EGUNGO LAGUNTZA-BEHARRAK

- Egungo laguntza-neurriak: zer neurri ditu gaur egun, bat ere ez, egitezko zaintza, notario-ahalordea...
- Egungo laguntza-beharrak
 - Osasunaren zaintza.
 - Ondasunen administrazioa.
 - Bizitzaren arlo guztiak.
 - Beste batzuk (zehaztu)
- Lanbide-proposamena: desgaitasuna duen pertsonarekin duen harremanagatik eta haren zirkunstantziengatik laguntza emateko eta haren autonomia indartzeko egokiena dela uste den pertsona adieraztea, eta harremanetarako datuak adieraztea.

10. ADIERAZITAKO NAHIAK, BORONDATEAK ETA LEHENTASUNAK

- Ordezkatzea nahi duen pertsona, etorkizunerako nahiak, asistentziakoak sartu.
- Bere babesei buruz erabakitzeke kontuan hartuko zenituzkeen faktoreak.

Gizarte-langilearen identifikazioa eta sinadura

Izen-abizenak, erakundea eta elkargokide-zenbakia

OSASUN-TXOSTENA EGITEKO GOMENDIOAK

Kontua da txosten klinikoak deskribapen sintomatiko hutsa baino zerbait gehiago eman behar duela, pertsonaren desgaitasun-profila eta gaixotasuna lotuz. Txosten sozialetik bereizi behar da, baina gerta daiteke gainjartzea. Gaixotasunari/urritasunari buruzko informazioa izango da elementu bereizgarria, informazio hori pertsonaren laguntza-premiekin lotuta.

1. GAIKOTASUNAREN DIAGNOSTIKOA

Arau zaharrak honako hau zioen: “pertsonak bere burua gobernatzea eragozten duten gaixotasun edo urritasun fisiko edo psikiko iraunkorrak dira ezgaitzeko kausak”. Gaur egun ezgaitasunaren kontzeptua ezabatu egin da, eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzak aipatzen dira. Desgaitasunak, era berean, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Giza Eskubideei buruzko Konbentziotik abiatuta, honela ulertzen dira: “epe luzerako urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorialak, oztopo desberdinekin elkarreraginean, gainerakoen baldintza berberetan gizartean erabateko parte-hartze eraginkorra eragotz dezaketenak”.

Beraz, beharrezkoa da oro har adimen- edo buruko-urritasun bat egotea, eta adierazi eta definitu egin behar da. Kasu batzuetan urritasun hori gaixotasun bat izango da, eta, beste batzuetan, berez gaixotasuna ez den zirkunstantzia bat (adimen-desgaitasuna).

2. GAIKOTASUNAREN/URRITASUNAREN DEFINIZIOA.

Sistema berriaren oinarria premia zehatzetarako laguntzak ematea da. Garrantzitsua da, beraz, gaixotasunaren izaera, funtzionamenduan duen eragina eta laguntza beharrezko zergatia azaltzea. Deskribapen hori orokorrean eta pertsonari berari dagokionez egin behar da.

3. PRONOSTIKOA.

Pertsonaren ezaugarri orokorrei, hala badagokio izan duen bilakaerari (ospitaleratzek, bereziki) eta etorkizuneko bilakaera zehaztu dezaketen banakako zirkunstan-

tziei buruzkoa (jarraibideen jarraipena, lehendik dauden laguntzak). Beharrezkoa da bilakaera horren eredu aurreangarrian eragitea; izan ere eredu horren arabera aurreratu daiteke laguntzak biziagoak izan daitezkeela denborarekin (dementia bezalako gaixotasunak), adimen-desgaitasunaren aldean, desgaitasun horretan autonomia eta baliabide pertsonalak sustatu daitezkeelako eta, beraz, laguntzak murriztu.

4. DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK, GAIXOTASUNAREKIN EDO URRITASUNAREKIN LOTUTA

a. Gaixotasunaren/urritasunaren kontzientzia.

- I. Egoeraren ezagutza eta ulermena.
- II. Laguntza-premia eta osasun-arretaren beharra hautematea.
- III. Jarraibideak betetzea.
- IV. Gaixotasunaren/urritasunaren betetze-mailaren eta pertsonaren autonomiaren eragina, halakorik badago.

b. Desgaitasunaren kontzientzia.

- I. Pertsonak ondo ulertzen al du bere laguntza-premia?
- II. Bere gaitasunen araberako neurriko (neurririk gabeko) planik egin du edo halakorik badu?
- III. Inguruabar sozialak eta harremanetakoak ezagutzea/hautematea.
- IV. Gaixotasunak bere autonomian edo gaitasunetan duen eragina behar bezala ez hautemateagatik bere ongizaterako arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak.

c. Errealitatearekiko harremana.

- I. Pertsonak bere ingurubar pertsonalak, ondarezkoak edo harremanetakoak eta gaixotasunaren/urritasunaren edukietan duten eragina ezagutzea.
- II. Inguruabar soziokulturalak eta inguruarekiko harremanean edo jarduera gauzatzean eta gaixotasunaren/urritasunaren edukietan duten eragina ezagutzea.
- III. Gaixotasunaren/urritasunaren edukiei dagokienez laguntza informalak eskain ditzaketen pertsonekin edo erakundeekin konfiantzazko harremanak ezartzeko gaitasuna.

d. Autozaintza

- I. Pertsonak ba al du trebetasun nahikorik oinarrizko biziraupenerako?
- II. Pertsonak ba al du motibazio eta ekimen nahikorik oinarrizko biziraupenerako?

e. Ondarea maneiatzea.

- I. Gaixotasunak/urritasunak ondarearen nolakotasuna edo zenbatekoa haute-matean eta bere diru-sarrerak zein diren jakitean duen eragina.
- II. Administrazio-gaitasun autonomoa: gastuak diru-sarreraren neurrikoak izatea, gaixotasunak/urritasunak plangintza ekonomikoan izan dezakeen eraginarekin edo inpultsibotasunak gaixotasunaren/urritasunaren sintoma gisa izan dezakeen eraginarekin.

f. Gaixotasunari/urritasunari lotutako kontrola/inpultsibotasuna. Zenbateraino eragiten duen bere erabakietan edo autonomian, ondare-alderdietatik harago.

g Sugestabilitatea, gaixotasunarekin lotuta

- I. Memoriaren afektazioaren eragina, halakorik badago.
- II. Akatsen eragina pertsonak identifikatzean, halakorik badago.
- III. Pasibotasunaren edo motibazio faltaren eragina, halakorik badago.

5. IDENTIFIKATU AHAL DIREN GUZTIETAN, ADIERAZI BEHARKO LIRATEKEEN LAGUNTZAK (ADIBIDEZ, ONDASUNAK ADMINISTRATZEKO LAGUNTZA) ETA, BIDERAGARRIA BADA, LAGUNTZA HORIEK EMAN DITZAKETEN ETA DAGOENEKO LOTUTA DAUDEN PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK.

EGOITZA-ZENTRO BATEAN SARTZEA
BAIMENTZEKO EGITATEZKO ZAINTZAILE
GISA EGINDAKO ESKAERA

....KO LEHEN AUZIALDIKO ZK. KO EPAITEGIARI

BORONDATEZKO JURISDIKZIOA

..... jaun/andreak
(NAN:), eta agiri hori erakutsi ondore berriz gorde du, helbidea
..... duenak, telefono-zenbakia,
honakoa

ADIERAZTEN DUT:

Honako pertsona hau egoitza edo zentro egokian sartzeko baimen judiziala eskatzen duela:

..... jaun/andea; urtekoa; egorera zibila:
....., helbidea n duena.

Berek (ahaidetasuna idatzi) gaixotasun hau duela
(zehaztu gaixotasuna):
.....

Sarrera eskatzeko arrazoiak hauek dira:

Ustezko desgaituak ez duela notario-ahalorderik eman (ahalordea eman badu, ahalorde hori aurkeztu behar du).

Honako dokumentu hauek aurkeztu dituela, GUZTIAK lortu nahi duen egoitzako sarreraren xede den pertsonari buruzkoak:

- 1.- NANaren fotokopia.
- 2.- Jaiotza-ziurtagiri literala.
- 3.- Errola-ziurtagiri literala.
- 4.- Gaixotasunari eta egoitzan sartu beharrari buruzko txosten mediko eguneratuak.
- 5.- Txosten sozialak, baleude.
- 6.- Seniderik hurbilenen izenak, helbideak eta telefonoak.
- 7.- Notario-ahalordearen fotokopia (baldin badago).
- 8.- Sarrera zein egoitzatan egin nahi den adierazi eta plaza-erreserbaren egiaztatzea aurkeztu.

Dokumentazio guztiaren **bi kopia** aurkeztu behar dira.

Adierazi den hau guztia kontuan hartuta

EPAITEGI HORRI ESKATZEN DIOT idazki hau aurkeztuztat jotzea, onar dezala eta aurreko adierazpenak egin ondoren, desgaitasuna duen jaun/andrea egoitzan sartzeko baimena eskatuztat jotzea.

Justiziakoa delako eskatzen dut

.....n, 202...(e)koren (e)an

EGITATEZKO ZAINZTAILEAK DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN **BANKU-KONTUETAN ESKU HARTZEKO BAIMEN JUDIZIALAREN ESKAERA**

....KO LEHEN AUZIALDIKO ZK. KO EPAITEGIARI

BORONDATEZKO JURISDIKZIOA

..... jaun/andreak (NAN:), helbidea duenak,
..... jaunaren/andreak (NAN:) **EGITATEZKO ZAINZTAILE**
moduan Epaitegi honetan aurkeztu eta zuzenbidean egoki den moduan, honako hau
ADIERAZTEN DUT:

Idazki honen bidez, **NIRE SENIDEA DEN** jaunaren/andreak
BANKU-KONTUETAN ESKU HARTZEKO BAIMENARI BURUZKO ESPEDIENTEA
IREKITZEA ESKATZEN DUT; PERTSONA HORREK BERE AHALMEN JURIDIKOA
GAUZATZEKO LAGUNTZA BEHAR DUEN EZINTASUNA DU. Eskaera hori honako
egitate hauek oinarrituta egiten da

EGITATEAK

LEHENENGOA.- Nire senitartekoa den jaun/andreak, eta horren
EGITATEZKO ZAINZTAILEA naiz, banku-izapideak egin behar ditu eta erakunde
horrek epaitegiko baimena eskatzen digu bere kontuetan esku-hartu ahal izateko. Banku-
erakundeak honako hauek dira:

- 1) _____ (kontu zenbakia eta banko-erakundea)
- 2) _____
- 3) _____

BIGARRENA.- DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN EGOERA

Honako hau da desgaitasuna duen pertsonaren egoera, osasunaren esparruan:

Agiri moduan eranstu dira pertsonaren egoera egiaztatzen duten medikuen txostenak.

AURKEZTU BEHAR DUGUN DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek aurkezten dira, **guztiak ere EGITATEZKO ZAINZTA** eta eskatutako baimenaren beharra **justifikatzen dutenak**:

- 1.- NAN (desgaitasuna duen pertsonarena eta egitatezko zaintzailearena).
- 2.- Familia-liburua.
- 3.- Errola-ziurtagiria.
- 4.- Hurbilekoak diren senideen izenak eta helbideak.

Aurreko egitateei Kode Zibilaren 250. eta 264. artikulua aplikatu behar zaizkie.

Adierazi den hau guztia kontuan hartuta

EPAITEGI HORRI ESKATZEN DIOT idazki hau aurkeztuztat jotzea, onar dezala eta aurreko adierazpenak egin ondoren, banku-erakundeetan geure buruak **EGITATEZKO ZAINZTAILE** moduan egiaztatzeko baimena eskatuztat jotzea gure senidea den jaun/andrearen banku-izapideak egiteko.

Justiziakoa delako eskatzen dut,

.....n, 202...(e)koren (e)an

JARAUNTSIA EGITATEZKO ZAINZTAILE GISA IZAPIDETZKO BAIMEN JUDIZIALAREN ESKAERA

.....KO LEHEN AUZIALDIKO ZK. KO EPAITEGIARI

BORONDATEZKO JURISDIKZIOA

.....jaun/andreak (NAN:), helbidea duenak,
..... jaunaren/andrearen (NAN:) **EGITATEZKO ZAINZTAILE**
moduan Epaitegi honetan aurkeztu eta zuzenbidean egoki den moduan, honako hau
ADIERAZTEN DUT:

Idazki honen bidez, **NIRE SENIDEA DEN JAUN/ANDREAREN
FAMILIA-HERENTZIAREN KUDEAKETAK EGITEKO BAIMENARI BURUZKO
ESPEDIENTEA IREKITZEA ESKATZEN DUT; PERTSONA HORREK BERE AHALMEN
JURIDIKOA GAUZATZEKO LAGUNTZA BEHAR DUEN EZINTASUNA DU.** Eskaera hori
honako egitate hauetan oinarrituta egiten da

EGITATEAK

LEHENENGOA.- Nire senitartekoa den jaun/andreak, eta
horren **EGITATEZKO ZAINZTAILEA** naiz, jaun/andrearen
jaraunspena onartzeko izapideak egin behar ditu; horrekiko duen ahaidetasun-harremana
..... da eta, horretarako **EGITATEZKO ZAINZTAILEA** naizenez gero,
..... notariotzan horren ondasunak onartzeko zuen baimena behar dut.

Jaraunspenean honako ondasun hauek onartzen dira:

AKTIBOIA:

1) _____

2) _____

3) _____

PASIBOIA (BALDIN BADAGO)

1) _____

2) _____

Ahal izanez gero, notariotzaren zirriborroa aurkeztu.

BIGARRENA.- DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN EGOERA

Honako hau da desgaitasuna duen pertsonaren egoera, osasunaren esparruan:

Agiri moduan eranstean dira pertsonaren egoera egiaztatzen duten medikuen txostenak.

AURKEZTU BEHAR DUGUN DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek aurkezten dira, **guztiak ere EGITATEZKO ZAINTZA** eta eskatutako baimenaren beharra **justifikatzen dutenak**:

- 1.- NAN (desgaitasuna duen pertsonarena eta egitatezko zaintzailearena).
- 2.- Familia-liburua.
- 3.- Errola-ziurtagiria.
- 4.- Hurbilen dauden senideen izenak eta helbideak.

HERENTZIAREN ONARPEN JAUSTIA JUSTIFIKATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA

- 1.- Hildako pertsonaren heriotza-ziurtagiria.
- 2.- Familia-liburua.
- 3.- Azken borondateak.
- 4.- Jaraunsleen testamentua edo aitortpena.
- 5.- Ondasun higiezinak, eskrituren kopia.
- 6.- Bankuen ziurtagiriak, heriotzaren datakoak.
- 7.- Zor posibleak, agiri bidez egiaztatuta.

Aurreko egitatei Kode Zibilaren 250. eta 264. artikulua aplikatu behar zaizkie.

Adierazi den hau guztia kontuan hartuta

EPAITEGI HORRI ESKATZEN DIOT idazki hau aurkeztuz jotzea, onar dezala eta aurreko adierazpenak egin ondoren, notariotzaren eta banketxeen aurrean geure buruak **EGITATEZKO ZAINTZAILE** moduan egiaztatzeko baimena eskatuz jotzea gure senidea den jaun/andrearen jaraunspen-izapideak egiteko.

Justiziakoa delako eskatzen dut

..... n, 202...(e)koren (e)an